



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

PANDEMIA DALA ETA, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK BERTAN BEHERA ITZI DABE URRIAREN 3RAKO AURREIKUSITA EGOAN DEIADAR MENDIEN EGUNA

- Bizkaiko Batzarrek lehentasuna emon deutse hain ekitaldi garrantzitsuan parte hartzen dabenean segurtasunari eta osasunari.
- XVII. edizioaren ospakizuna 2021eko irailera edo urrira atzeratuko da.

(*Bilbon, 2020ko irailaren 10ean*). Deiadar mendietara egiten dan igoereak urtebete itxaron beharko dau. Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak Mahaiari jakinarazo deusanez, urriaren 3an Gorbeian ospatu behar zan Deiadar Mendien Egunaren XVII. edizioa 2021era atzeratuko da, koronabirusak eragindako pandemia dala eta.

Mendiko martxa klasikoaren bultzatzaileak diran Bizkaiko Batzar Nagusiek uste dabenez, pandemiak azkenengo asteetan izan dauen bilakaera negatiboa ikusita, beharrezkoa izan da urtero deiadar mendietako batean ehunka mendizale alkartzen dituan hitzordua bertan behera iztea.

Erabagia, osasun erakundeakaz eta urtero Bizkaiko ohiturakaz egiten dan hitzorduaren antolakuntzan laguntzen dabene mendi taldeakaz berba egin ostean hartu da. Beste edozeren ganetik, Bizkaiko Batzarrek lehentasuna emon deutse hain ekitaldi garrantzitsuan parte hartzen dabenean segurtasunari eta osasunari.

Deiadar mendien tradizioak agintzen dauen moduan, Gorbeiak hartu behar eban igaz Ganekogortako tontorrean ospatu zan hitzorduaren lekukoa, aurretik Sollubek, Oizek eta Kolitzak egin eben moduan. Adin guztietako mendizaleak igoten dira urtero tontor horreetako batera, adarrotsa entzuteko. Antonio de Truebak idatzitako kondairak dinonez, XIV. eta XV. gizaldietan Gernikan egiten ziran bileretarako deia holan, adarrotsaren bitartez, egiten zan.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, erakundea barriro beharrean hasi osteko 25. urteurrena zala eta 2004an martxan jarritako tradizioari jarraipena emonez, ohituregaz jarraitu gura eben, urriaren 3an Gorbeian adarrotsa zabalduz, oraingo honetan Lemoako Ganzabal mendi taldearen laguntzeagaz. Covid-19aren eragina dala eta, Batzarrek Bizkaiko “gailurrera” egindako deiak urtebete itxoin beharko dau. 2021eko irailean edo urrian izango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA SUSPENDEN POR LA PANDEMIA EL DÍA DE LOS MONTES BOCINEROS, PREVISTO PARA EL 3 DE OCTUBRE

- El Parlamento de Bizkaia ha antepuesto la seguridad y la salud de las personas que participan en este evento tan popular.
- La celebración de la XVII edición se trasladará a septiembre u octubre de 2021.

(Bilbao, a 10 de septiembre de 2020). La tradicional subida a los montes bocineros tendrá que esperar un año. La presidenta de la Cámara vizcaína, Ana Otadui, ha informado a la Mesa de que la XVII edición del Día de los Montes Bocineros que iba a celebrarse el 3 de octubre en el Gorbeia, se traslada a septiembre u octubre de 2021 como consecuencia de la pandemia por el coronavirus.

Como impulsora de esta clásica marcha montañera, las Juntas Generales de Bizkaia creen que la negativa evolución de la pandemia durante las últimas semanas obliga a suspender una cita que suele congrega a cientos de *mendizales* todos los años en uno de los cinco montes bocineros.

La decisión ha sido adoptada tras las consultas pertinentes realizadas a las entidades sanitarias y a los clubes de montaña que colaboran anualmente en la organización de esta cita con las tradiciones vizcaínas. Por encima de cualquier otra consideración, el Parlamento de Bizkaia ha antepuesto la seguridad y la salud de las personas que participan en este evento tan popular.

Como marca la tradición bocinera, Gorbeia recogía el testigo de la cita celebrada el año anterior en la cumbre del Ganekogorta, como antes se había hecho también en Sollube, Oiz o Koltza. *Mendizales* de todas las edades suben cada año a una de estas cumbres para escuchar el sonido del cuerno con el que dice la leyenda escrita por Antonio de Trueba se anunciaba la convocatoria de las reuniones que se celebraban en Gernika en los siglos XIV y XV.

Las Juntas Generales de Bizkaia, continuando con la tradición iniciada en el año 2004 con motivo del 25 aniversario del restablecimiento de esta institución, querían llevar a cabo el tañir de los cuernos en Gorbeia el sábado 3 de octubre, en esta ocasión con la colaboración del club de montaña Ganzabal de Lemoa. Como consecuencia del impacto del covid-19, la llamada



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

a Juntas en el “techo” de Bizkaia tendrá que esperar un año. Será en septiembre u octubre de 2021.